

GAIXOTASUN MENTAL KRONIKOA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZU EDO ZENTRO OKUPAZIONALA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Eguneko arreta edo arreta okupazionala

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

18 eta 64 urte bitarteko pertsonak, **buruko gaixotasun kronikoa** dutenak.

Kostua

Doako zerbitzua (otordu zerbitzua izan ezik).

Baldintzak

Buruko gaixotasun kronikoaren diagnostikoa.

18 eta 64 urte bitartean.

Erroldatzea.

Zertan datza?

Buruko gaixotasuna duten pertsonen garapen soziorlaborala eta autonomia errazteko zerbitzu edo zentroa ([2.2.2 fitxa](#)). Horretarako, jarduera okupazionalak, estimulazio- edo errehabilitazio-jarduerak, hezkuntza-, prestakuntza- edo kultura-jarduerak garatzen dituzte. Otordu-zerbitzua eta garraio egokituko zerbitzua ere izaten dute, beharrezkoa denean. Malgutasun-irizpideak aplikatzen dira, zerbitzua erabiltzailearen beharretara eta lehentasunetara egokitzeko. Laneratzeko lehen urrats bat izan daiteke, edo lan bat lortzeko zailtasun handiak dituzten pertsonentzako etengabeko alternatiba bat. Erabiltzaileek eskersari ekonomikoa jasotzen dute beren lanagatik.

Norentzat?

18 eta 64 urte bitarteko edo gehiagoko pertsonak, **buruko gaixotasun kronikoa** dutenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua, otordu-zerbitzua izan ezik. Zerbitzu horren zati bat erabiltzaileak ordainduko du, bere egoera ekonomikoaren arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 eta 64 urte bitartean izatea.

Buruko gaixotasun kronikoaren **diagnostikoa**.

Eskaera egiten den Lurralde Historikoan **errolatuta egotea**.

Autonomiarako eta gizartean eta lan-munduan **integratzeko gaitasunak eskuratu** behar dira, eta ezinezkoa da epe laburrean enplegua lortzea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentro okupazionala Araban](#)
- [Gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentro okupazionala Bizkaian](#)
- [Gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentro okupazionala Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)